

GIPUZKOA

Baserri giroa nagusi Santiyo egunean

Blonda txapelketa edo gazta eta nola ez, sagardo lehiaketa egin ziren. Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen eta herriko jaiei hasiera ezinhobea eman zitzaien

ELI AIZPURU AZPEITIA

26 julio 2014
00:04



Bi urtean behin egin ohi da Azpeitian Euskal Herriko Blonda Txapelketa, hortik hainbeste ganadu buru. Behean, sagardo lehiaketako eta gazta txapelketako irabazleak. / E.A.

Beste behin, Santio egun jendetsua izan zen Azpeitian.

Gauean eta goizaldean izandako trumoiak alde batera laga eta goiz eguzkitsuari lekua egin zieten, prebisio guztiei kontra eginez. Sagardoa edateko eta txekor erre edo hegaluze eta gazta pintxoak dastatzeko goiz paregabea atera zuen.

Dantzari hasi zuten eguna. Azpeitiko Napar Zuzterrak taldeko kideek Nafarroako banderari omenaldia eskaini zieten Plazan.

Baserritarren eguna izanda, baserri munduko produktuekin eta bizimoduarekin erlazionatutako lehiaketa ugari zeuden. Izan ere, San Tomas Egunean, neguko lehiaketak badira, udakoak daude Azpeitian santiyo egunean. Eta atzokoan ere, 42.nez, Sagardo Lehiaketa; XVI. Gazta lehiaketa eta bi urtean behin egin ohi den Euskal Herriko Blonda txapelketa, 19.a orangoan, ospatu ziren. Bazegoen bai zer ikusia bazterretan!

Herrerue, nagusi

Azpeitiko Sagardo lehiaketa Euskal Herriko lehia zaharrena da. 23 sagardogilek hartu zuten parte orangoan ere, plazako arkupe bakoitzeko upategi bat. Bi lehia izan ohi dira. Ofiziala edo epaimahaikideek egin ohi dutena eta herritarren edo elkarteena. Hala, Astigarragako Herrerue sagardotegia nagusitu zen, 129 punturekin. Gustura hartuko zuen albistea bertako nagusi Iñaki Irigoienek. Izan ere, aita izan zen eta noski, ezin izan zuen Azpeitian egon. Ordezkarri batek jaso zuen saria. Bigarren postuan, 126 punturekin, Hernaniko Altzueta sagardotegia sailkatu zen eta Alorrenea izan zen hirugarrena (Astigarraga), 125 punturekin.

Elkarteek edo herritarrek eman ohi duten saria Petritegi sagardoregiarentzat izan zen.

Gazta onena, Urbiakoa

Idiazabal jatorri deituradun XVI. Gazta Lehiaketa ere ospatu zen eta saria Olaberria-Urbiako Aizpea gaztandegiarentzat izan zen. Ipiñaburuk eraman zuen bigarren saria Zeanurira eta hirugarren postuan, Beizamako Patxi Otaegi sailkatu zen.

Blonda dotoreenak

Euskal Herriko Blonda arrazako bururik dotoreenak ere Azpeitian ziren atzo. Astotegitik hasi eta Zelai Luzen zehar abere ugari ikusteko aukera izan zuten herritarrek eta bertara hurbildu zirenek. Orioko Longa baserriko Jose Angel Zendoiaeren ganaduek izan zuten arrakastarik gehien Azpeitian bi urtean behin ospatu ohi den Euskal Herriko Blonda txapelketan. Izan ere, Longa baserrikoa izan zen behi txapelduna eta baita talde hobereenaren saria ere. Aberekingo saria ere berak eraman zuen. Zezen txapelduna aldiz, Markina Xemeingo Illaspe baserrikoa izan zen.

Azpeitiko baserritarrek ere hartu zuten parte lehian eta sail desberdinetan emandako sarietan aurrean ibili ziren. Honela, 4 sari etxeratu zituen Eizmendi baserriko Lucia Orbegozok eta beste bi Agite baserriko Antonio Olaizolak.

Festa giroak egun guztian zehar jarraitu zuen. Arratsaldean erreteak izan ziren zezen plazan eta kantu poteoan ere aritu ziren herritarrek.

Gaur ere festak jarraituko du. 10:30etik aurrera, XXXIII. Usakume Tiro Txapelketa izango da Lapatxen, Ollagorria Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta. 12:30ean, herri kirol ikuskizuna dago, Perez Arregi plazan. Ernesto Ezpeleta 'Bihurri' eta Joxe Felix Zubizarreta, aizkoran, eta Joseba Ostolaza eta Idoia Etxeberria harriarekin, ariko dira. Arratsaldean, 16:00etan hasita, 34. Inazio Deunaren Txirindularitza Saria jokatu da, kadete mailan. Eta, 18:30ean, marea arrosa olatuaren sorrera izango da. Luntxa ere egingo dute. Afaria dago gero Azoka plazan eta Emon taldearen kontzertuarekin amaituko da eguna.

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariiovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.